

JARDUERAK

Proiektuaren lehenengo urratsa fardel logoa jartzea da, non proiektuaren identitatea islatuko duen logo sinple eta ikusgarri bat sortzea da helburua. Logo honen tamaina eta kokapena estandarizatu beharko da, fardell guztietan berdin aplikatu ahal izateko. Ondoren, inprimaketa edo brodatze teknika egokiena aukeratuko da, iraunkortasuna eta garbigarritasuna kontuan hartuz. Azkenik, probako fardell batzuetan aplikazioa egin eta kalitate-egiaztapena burutuko da.



AAk sortutako irudia 2025 (ChatGPT-rekin).

Deskribapena: Gure enpresaren logoa ikusi daiteke.

Hemendik hartu da: <https://chatgpt.com/>

Behin logoa jarrita, fardel banatzeko fasera pasatuko litzateke. Bertan, hartzaileak identifikatu beharko dira eta banaketa egutegi bat prestatu eta komunikatuko da. Banaketarekin batera, informazio orri bat gehituko da, nola erabili, nola garbitu eta zein onura dituen azaltzeko. Prozesu osoan zehar, feedbacka jasoko da eta hobekuntzak dokumentatuko dira.

Ondoren, beste produktu batzuk garatuko dira, hala nola, adur-zapiak eta telazko poltsak diseinatuko dira. Horretarako, beharrak aztertu beharko dira: tamainak, erabilera motak eta material egokienak definituz. Diseinua sortuko da. Garrantzitsua da ingurumen bermatzeko material birziklagarriak erabiltzea.

Azken urratsa adur-zapiak eta telazko poltsak banatzea izango litzake. Ekoizpena bukatuta, unitateak sailkatu eta paketatu egingo dira. Banaketa kanalak antolatuko dira. Amaitzeko, erabiltzaileen iritzia jaso eta dokumentatuko dira etorkizuneko hobekuntzak egiteko asmoz.

Gure proiektua ondo funtziona dezan kontuan hartu beharreko ekintza eta estrategiak honako hauek dira:

1. Produktuen kalitatea bermatzea

Ezinbestekoa da marka bisuala finkatzea. Horretarako, logo argi eta koherentea sortu behar da. Hala ere, produktuen iraunkortasuna ziurtatzeko, inprimaketa edo bordatu teknika egokia aukeratu behar da. Kalitatearen egiaztapena bermatzeko, funtsezkoa probak egitea ekoizpenari ekin aurretik.

2. Diseinu eta material egokiak hautatzea

Proiektuaren hasieran, erabiltzaileen beharrak zehaztu behar dira. Ingurumenarekin bat egiteko, material birziklagarri edo jasangarriak aukeratu behar dira. Bukatzeko, diseinu grafiko erakargarria eta, aldi berean, praktikoak izatea erabiltzeko momentuan erabiltzaileei aberasgarriagoa izango da.

3. Banaketa antolatua eta eraginkorra

Banaketa estrategia on bat prestatzeko, lehenik eta behin, hartzaileak identifikatu behar dira. Ondoren, banaketa egutegi argi bat prestatuko da. Azkenik, banaketa zuzenarekin kontsumitzaileei abiatuko gara.

4. Informazioa ematea

Produktuaren erabilera egokia funtsezkoa da. Informazio hori argia eta ulerterraza izatea ezinbestekoa da erabiltzaileek produktua ondo aprobetxa dezaten.

5. Feedbacka jasotzea eta hobekuntzak egitea

Etengabeko hobekuntza bultzatzeko, erabiltzaileen iritzia modu sistematikoan biltzea beharrezkoa da. Jasotako feedbacka dokumentatu eta hurrengo ekoizpenetan hobekuntza horiek txertatzea da.

6. Antolaketa eta Jarraipena

Proiektuaren kudeaketa eraginkorra ziurtatzeko, prozesu guztien jarraipen antolatua egin behar da. Lanaren erregistro zehatza mantentzeak proiektua etengabe hobetzeko eskainiko du.